

Oitz



Aurkibidea

Udalerria: Oitz

Sarrera



Malerreka eskualdeko udalerria. Euskara da herrian erabiltzen den hizkuntza; esan daiteke herritar guztiak direla euskaldunak. (Argazkia [wikipedia](#)tik hartua)

- **Biztanleak:** 160
- **Euskaldunak:** %91,24

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **5**
- Zintak: **6**
- Pasarteak: **17**
- Transkribatutakoak: **1**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **17**

Proiektuak

- Dialektologia-EHU
- Euskal Herriko Ahotsak
- Euskal Herriko txori eta animaliak
- Fondo partikularrak

Hizlariak

Bittori Arrastio

Juan Pedro Goñi (1937)



Oitzen jaioa, Martixpenea etxean. Gaur, bertan bizi da. Aita oitzarra zuen eta ama Donamariakoa. Bera, hamar senidetan bederatzigarrena zen. Mendian lanean ibilia 28 urte arte. Zortzi urtetan mutil joan zen Elgorriagara (“behi aintziñin, behiak giatzen”). 12-13 urterekin mendian ziren anaiei mantenua eramatera igotzen zen astean behin, mandoan. Geroago mendian lanean hasi zen, Endarlaza aldean pinuak ateratzen, eta abar; sei-zazpi hilabete egiten zituzten etxetik kanpora. 18 urterekin Frantziako estatura abiatu zen baso-lanera: Mont Marsan aldean, Senpere aldean... ibilia da. Soldadutzatik itzuli ondoren, 1961ean, Orhipean dagoen Larrañe herrira abiatu zen hango basoetan arbolak bota eta ateratzeko lanetan. Hurrengo urtean berriz, Alpeetara, 1966 arte. Orduan kamiolari lanean hasi zen, 1999an erretiroa hartu arte. Orduan, kaikugintzan hasi zen, eta urte mordo batean horretan jarraitu zuen. Umetan aita ere egiten zituen, baina berak 13 urte zituela hil zenez ez zuen harengandik ikasi; aldiz, Juan Bertiz oitzarrak erakutsi zion.

Karmelo Lizasoian Ezpeleta (1943)

Oitzen jaio zen. Aita gazterik hil zitzaien, eta Karmelok umetan hasi behar izan zuen lanean. Zortzi urte zituenerako, Labaiengo etxe batera joan zen lanera. Horren ondoren, hainbat tokitan egin izan du lan, gehienbat mendian, egurretan (Nafarroan, Lleidan eta abar).

Patxi Lizasoian Ezpeleta (1947)

Oitzen jaio zen, 9 senideko familia batean, eta bertara itzuli zen jubilatzean. Hala ere, bizi gehiena kanpoan egin du. 13 urterekin hasi zen lanean, mendian. Han aspertu, eta Bilbora joan zen lanera bi urtez; geroago, beste hainbat lekutan: Gipuzkoan, Alpeetan eta Iparraldean (Baigorri, Zuberoan...). Mendian egin izan du lan batez ere.

Migel Urroz Arrastio (1936)



Oizko (Malerreka) Etxezarrean sortua, aita ere Oizkoa zuen eta ama Donamariakoa. Gazterik hasi zen oihanean basogintzan, eta hainbat urtez ibili zen lanbide horretan, Malerrekan eta Iratin, besteak beste. Zura ere landu izan du (gurdiak, lerak, baserriko tresnak...), eta azken urteotan feriatara ere joan izan da bere lanak erakustera eta saltzera (batez ere egurrezko lepokoak, oholak...). Elkarrizketa bere lantegitxoan egin zitzaion. Ehiztaria ere izan da txiki-txikitatik, eta horri buruzko hainbat azalpen aipatu ditu elkarrizketan.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Familia eta harremanak

1.1. 1936an, gerrate-garaian jaioa

- **Hizlaria(k):** Urroz Arrastio, Migel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** OIT-003/001
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:00:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia
- **Laburpena:** 1936an jaioa gerratearekin batera. Hiru-lau urte zituenekoa da duen gerrako lehen oroitzapena; hegazkinak gogoratzen ditu.

Transkripzioa

- Hasteko, esango didazu zure izena eta apellidoak eta noiz jaioakoa zean.
- Ni naiz sortua urrian hogeita batin, mila ta bederatziehun eta hogeita hamasein. "Mil novecientos treinta y seis".
- Urrian.
- Bai, urrian. Bai, hogeita batin.
- Gerra sortu zan...
- Bai, bai, orduan. Ordun in berria zen. Hala erraten diten, nik ez nun ordun ezautzen, zergatiken... Gero bai, gero handiken ya hiru urte, hiru urtetan hola, hiru-lau urtetara ya jakiten baitzen, ordun bai, hori, abionak eta

somatzen nitun.
- Bai, e?

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Aita zena uso ehiztari ona (OIT-003/002)

Aita zena usotara joaten zen eta mordoxka ekarri ohi zuen etxera. Uso-toki ona zen Migelen etxe ingurua eta hegazti-saldo izugarriak pasatzen ziren. Txori-izenak aipatzen ditu.

2. Frantziako ehiza mota (OIT-003/003)

Frantzian sareekin txoriak harrapatzen ikusi zituen. Hango harrapaketaz eta txori ezberdinez hitz egiten du.

3. Bederatzi urterekin tiragomarekin ehizan (OIT-003/004)

Migelek gaztetan, bederatzi bat urterekin, tiragomarekin ehizatzen zuen. Inguruan jende gehiena ehiztaria zen. Basurde garaian ere asko mugitzen ziren txakurrekin ehizara. Herriko naiz kanpoko jendea gerturatzen zen alboko sei herrietako jendea elkar hartuta.

4. Azeri eta azkonarren pikardiak (OIT-003/006)

Azeriek eta azkonarrek garia jan ohi zuten eta kaltea saihesteko batidak egiten zituzten. Azkonarrak kaja batekin zepoa eginaz harrapatzen zituzten. Azeriei mendian jartzen zitzairen zepoa. Zepo-motak aipatzen ditu. Hil ondoren haien larrua saldu egiten zuten eta ondo ordaindua zegoen. Basa-abere ezberdinak aipatzen ditu.

5. Katua zein azkonarra, otordurako jaki (OIT-003/007)

Abere ugari jaten zuten, esaterako, katua eta azkonarra. Saltsan edo gisatua eginda jaten zituzten.

6. Ehizatutako abereen larrua saldu aurretik udaletxera (OIT-003/008)

Harrapatutako aberearen larrua saltzeko udaletxera eraman eta erakutsi egin behar zuten. Ez zuten gehiegi ordaintzen. Azeria eta belea zeuden onartuak salmentarako.

7. Neguko paseko txoriak (OIT-003/009)

Txorien inguruan hitz egiten du. Lertxuna, antzarrak, ahateak... neguko paseko txoriak.

8. Ahateak jaki goxoa (OIT-003/011)

Ahateek larrutzen lan pixka bat ematen zuten, baina jatekoa ziurtatua izaten zuten.

9. Eskopeten inguruko azalpenak (OIT-003/013)

Gaztetan birigarroak ehizatzen zituzten, eskopeta zaharrarekin. Eskopeta ezberdinak aipatzen ditu. Armeriak baziren inguruan eta Eibarrera ere bidaltzen zituzten eskopetak konpontzera.

10. Lehenengo eskopeta 11 urterekin (OIT-003/014)

Lehenengo eskopeta 11 urterekin izan zuen. Soldadutza egin arte ez zuen legalki paperez jarritako eskopetarik izan.

11. Tiro bakarra eta denek batera (OIT-003/016)

Ehizan ari zirenean, uso-saldoak gerturatzean, uso denak zelaian geldirik jarri arte ezin zuten tirorik bota, tiroa botaz gero ez zieten uzten berriz botatzen txanda pasa egiten zitzaion pertsona horri. Tiro bakarra eta denek batera botatzen zuten.

12. Ehizara goizean argitu aurretik; zemelak (OIT-003/017)

Goizean argitu baino ordubete aurretik jartzen ziren zain. Sua ere egiten zuten. Gurasoak ere bere garaian ibiltzen ziren ehizan. 50-55 urte ingurutik zemelak desagertu egin ziren. Zemelaren inguruko azalpenak.

13. Ehizarako toki aproposak (OIT-003/018)

Ezpeldegi eta Donamaria inguruan ibiltzen ziren ehizan. Inguruko mendiak eta bazterrak izendatzen ditu.

14. Umetako jolasak: "txintxarikuan" eta "sosetan" (OIT-003/021)

Ama Donamariakoa zuen; eta aita, Oizko ostatukoa. Garai batean, etxe ugaritan egoten zen jendea maizter. Umetan, Oitzen 60 mutiko inguru zeuden. Zuhaitz gainetik militarrei begira egoten ziren. "Txintxarikuan" eta "sosetan" jolasten zuten. Jolasak azaltzen ditu.

15. Lagunekin erre kara arrantzara eta bainatzera (OIT-003/022)

Erre kara lagunekin joan, eta arrantzan aritzen ziren. Arrantza nola egiten zuten azaltzen du. Putzu bat zuten eta han bainatzen ziren.

16. 12 urterekin lantegira lanera (OIT-003/023)

12 urterekin tailer batean hasi zen lanean eta aitarekin ere ibili zen. Gero basoan jardun zen. Anaiarekin zerbitzari lanetan aritu zen rantxero moduan txabola batean. Lo bertan egiten zuen batzuetan.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-18

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com